



AIETE BILERAREN LABURPENA

Eguna / Día: 2015/11/9
Ordutegia / Horario: 19:00-20:30
Tokia / Lugar: Bera-Bera Auzo Elkarteen egoitza



DEITUTAKOAK:

Lantxabe AE/AV
Bera Bera AE/AV
Alto de Errondo AE/AV

Gune Publikoak, Hiri Zerbitzuak,
Mugikortasuna eta Herri Partaidetza.
Udal ordezkari politiko eta teknikoak

BERTARATUAK:

Lantxabe AE/AV:	4
Bera Bera AE/AV:	5

Udal Partaideak:

Duñike Agirrezabalaga, Zinegotzia
Miguel Díez Bustos, Zinegotzia
Juan Ortiz de Zarate, Zuzendari
Jurdana Arruabarrena, Teknikari
Santxo Leizaola, Teknikari

Helburua:

Aieten hobekuntzak egiteko premiak eta proposamenak jasotzea, segimendua egitea eta auzoarekin lotutako proiektuei buruzko informazioa ematea.

Landutako gaiak

1. Aurreko legealdian hartutako konpromisoak berraztertzea
2. Jarduerak Aiete pasealekuan
3. Oinezkoentzako ibilbideak, aparkalekuak eta garraio publikoa
4. Bizikletak, mugikortasun bertikala eta TAO
5. Argiztapena
6. Azpiegiturak: anbulatorioa, jolastokia eta Etxadiko igerilekuak
7. Garbiketa eta mantentzea
8. Espaloiak garbitzeko makina automatikoak erabiltzea
9. Hiri mantentze eta mugikortasuneko zenbait gai
10. Eskaerak eta galderak

Gaien azterketa

1. Aurreko legealdian hartutako konpromisoak berraztertzea

Bera Berak eta Lantxabek eskatu dute aztergaien zerrenda birbideratzea mantentze eta komunikazio gaian.

Bera Berak aipatu du honen aurretik bilera bat izan dutela jada Mugikortasuneko Pilar Aranarekin eta akta helaraziko digutela.

Hirigintza Sostengagarriko Enrique Ramosekin ere bilera izan dute Bera Beran jarduteko esparru orokorreko plan baten inguruan (hiri-eraberritze plana). Amaitu gabe dagoen auzo bat dela adierazi dute eta jarduteko plan bat proposatzen dute arazoei ikuspegi orokor batetik heltzeko. Bera Berak akta igorriko digu.

Planari dagokionez:

- Pagolako magalean sasitza kendu da, baina landare inbaditzaileak daude.
- Ur Zerbitzuari dagokionez, aipatu dute azken lau urte hauetan zortzi aldiz esku hartu dela euri-urak eta ur beltzak bereizteari dagokionez, baina ez dute uste gaia konponduta dagoenik. Bilera eskatu dute Ur eta Saneamenduko teknikariekin.
- Egingo diren jarduerak aldeztu aurretik JAKINARAZTEA eskatu dute.
- Aipatu dute 2015eko aurrekontuan kontu- sail bat zegoela auzoko galtzada zolatzeko, baina beste jarduera eta ezusteko batzuk direla eta, ez dela ezer egin.

Lantxabek zalantzan jartzen du bilera hauen baliagarritasuna. Beren buruari galdetzen diote Udalak aintzat hartzen al dituen deitzen dituen solaskideak. Gustatuko litzaioke aktan adostasunak eta desadostasunak jasotzea, eta esan du gai honi buruzko aurreko bileraren akta ez dagoela onartuta. Esan du antzintasun bat dagoela auzoko proiektuei dagokionez.

Duñiiek bilera bere testuinguruan jarri du eta adierazi du sailen erantzunen harmonizazioak hobera egin duela. Partaidetza sailetik, harremana osotasunetik planteatu nahi dute. Udalbatza berriak bilerak egiteko eta auzoari baterako erantzun bat emateko asmoa du. Partaidetzak auzoko gaiak koordinatuko eta bideratuko ditu eta gainerako departamentuen segimendua egingo du.

Auzo elkarteek (Bera Berak eta Lantxabek) ez diote sinesgarritasunik ematen prozesuari eta bazter utzita sentitzen daramate hogeita bost urte.

2. Jarduerak Aiete pasealekuan

Eskatu dute Aieteko jauregia eta parkeko sarrera arteko espaloiak zabaltzea eta segida bat ematea, eta gero, pasealekuaren mugikortasunean eragitea "30 gunea" bilakatuz; hori guztia, bulebar bilakatu aurreko pauso gisa.

3. Oinezkoentzako ibilbideak, aparkalekuak eta garraio publikoa

Bera Barak aipatu du Enrique Ramosekin bilera egin dutela Athleticok 600 plazako aparkaleku bat egin nahi duelako.

4. Bizikletak, mugikortasun bertikala eta TAO

Gaia ez da aztertu.

5. Argiztapena

Lantxabek eskatu du argiztapena hobetzea puntu hauetan:

Topalekua

Parke irteerako Topalekuko 4 fokuak piztuta edukitzea, parkea zabalik dagoen artean.

Mantentze sailekoak esan du foku horiek piztuta edukitzeko parke osoak egon behar duela piztuta, argiak ez daudela eta bereizita. Konpromisoa hartu dute argiteriaren funtzionamendua berraztertzeke hobetu ahal izateko.

Pakea pilotalekua

Eskatu dute foku bat jartzea neguko arratsaldeetan pilotan aritzerik izateko.

Kirol Patronatuari dagokio.

Katxola

Inguru horretan farol gehiago jartzea eskatu dute.

6. Azpiegiturak: anbulatorioa, Jolastoki eta Etxadiko igerilekuak

Lantxabek aldeztu du Jolastokiri balioa eman behar zaiola auzoko gune ludiko publiko gisa. Alde horretatik, erabilera publikoko gune bat dela adierazteko plaka bat jartzea eskatu dute.

7. Garbiketa eta mantentzea

Gaia ez da aztertu.

8. Espaloiak garbitzeko makina automatikoak erabiltzea

Eskatu dute auzoko mantentze lanak informazio sistema baten bidez egitea, lehenbizi FCC enpresako (azpikontrata) kale garbitzaileek esku hartuz, eta udaltzainek ere bai.

9. Hiri mantentze eta mugikortasuneko zenbait gai

Marañón Doktorearen pasealekua

Lantxabek eskatu du, lehenbizi, arbolak kentzea.

Mantentzekoak jakinarazi du arbolek balioa dutela eta bere garaian pasealekuan esku hartzeko proposamen bat aurkeztu zuela. Honetan zetzan: espaloia kentzea eta lorategi eremuko zuhaitzak bere horretan uztea. Era berean, haren aurreko espaloiak zabaltzea. Proiektua idatzita dago eta aurrekontua 40.000 € da gutxi gorabehera.

Lantxabe ados dago Mantentze sailaren proposamenarekin.

Urak

Bera Berak aipatu du 2014an hiru toki hauetan esku hartu zela: Kirol plaza, etxe ingelesak eta Zuhaixken pasealekua; baina, era berean, ez dira bete dokumentuan jasotako konpromisoak. Nabarmendu dute ez dutela nahi 4 urtetan 8 esku-hartze egitea.

Uren Ustiapen eta Saneamendu Zerbitzuak ez du uste arazorik izango denik, baina itxaron nahi du ikusi arte nola irensten duen Kirol plazako estolda zuloak uholde urekin.

Eskatu dute kutxatila berrikustea eta bilera, teknikari arduradunekin.

Arboladia

Bera Berak esan du Pagolako magalaren egoera berrikusi behar dela, zalantzan jartzeko moduko birlandatzea egin omen dela, eta horrez gain, landare inbaditzaileen gaia dago. Aritzak eta pagoak berraztertze ere eskatu dute.

10. Eskaerak eta galderak

1.-2016ko aurrekontuak

Duñiketik adierazi du 2016ko aurrekontuak 2015eko azaroaren 10ean aurkeztuko dituztela.

Bera Berak planteatu du Aieteko gaiei heldu behar zaiela, gai politikoa dela.

Duñiketik aipatu du jakin behar dugula zein gairi heldu nahi dieten, behar bezala erantzun ahal izateko: komenigarritasunari buruz, egutegiari buruz eta lehenespenei buruz, besteak beste.

Auzo-elkarteek zalantzan jarri dute auzoan jarduteko eta auzoa kudeatzeko Udalaren eredua.

Miguel Ángelek esan du txostenak (Bera Beraren eta Lantxaberaren akta eta dokumentuak) bere zuzendariekin aztertuko dituela eta jardueren lehentasunak zehaztuko dituztela.

2. Hiri eraberritze proposamena Bera Beran

Bera Berak konpromisoa hartu du Bera Berako epe luzeko hiri eraberritze plana 2016ko otsail edo martxo aldera entregatzeko. Plan horretan, jarduera koordinatuak izan behar dira uren zein asfaltatzearen alorretan.

Bileraren laburpena eta oinarritzko helburuak

Aieten bi helburu nagusi daude, bakoitza auzo-elkarte batek babestua:

- Lantxabe: lehentasuna ematen dio Aiete pasealekuan, jauregitik parkera, faseka esku hartzeari, espaloiak zabalduz eta haiei segida emanez, gero abiadura mugatuz (30 gunea), eta, hori guztia, pasealekua bulebar bilakatzeari begira.
- Bera Bera: bere lehentasuna Bera Bera eraberritzeko jarduera plana da.

Amaitzeko, Gune Publikoaren Erabilera Bulegoarekin harremanetan jartzeko datuak eman dituzte.



Eskerrik
asko!!